	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 1 / 9

3.1.2 Esperientziak, programak eta proiektuak

HIPI

Hizkuntza indartzeko proiektuan, parte hartuko duten ikasleak DBHko bi zikloetan bananduta daude.

Ondoko helburu orokorrak landuko ditugu:


- Euskal hezkuntza-sisteman sartu berriak diren ikasleen txertaketa bideratzea, eskola-inguruan ahalik eta azkarren eta baldintza hoberenetan integra daitezen.
- Komunikatzeko gaitasuna hobetzea giro lasaia eta atsegina batean. Euskara naturaltasunez erabiltzen hastea.
- Hizkuntzaz eta curriculumez gain; giza harremanak, balioak eta abar lantzea.
- Dibertsitate kulturala eta honen inguruko jarduera batzuk lantzea.
- Ikasle horiei berariazko arreta emateko bideak jartzea, irakaskuntza/ikasuntza prozesuan erabiltzen dituzten hizkuntzetako gaitasunak (hizkuntza-gaitasunak eta komunikazio-gaitasunak) eskuratzen laguntzeko, curriculum horretarako egokituz.

TESTULIBURUEN ETA CURRICULUM-MATERIALEN KUDEAKETA SOLIDARIOA

- Liburuak berrerabiltzea.
- Ikastetxeak beren kasa prestatutako curriculum-materialak berrerabiltzea.
- Lan koadernoak berrerabiltzea.

ESKOLAKO AGENDA 2030 (EA2030)

Eskolako Agenda 21 programa 2003-2004 ikasturtean abian jarri zen eta gure ikastetxeak 17 urte daramatza jasangarritasunaren aldeko heziketa bultzatzen programa honen bidez, 2004-2005etik.

	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 2 / 9

EA21, orain EA2030, Hezkuntza komunitatearen partaidetzan dago oinarrituta, ikasleriari aparteko protagonismoa emanez eta udalerrriaren garapen iraunkorrean lagunduz. Jasangarritasunerako Hezkuntzarekiko egindako lan on eta jarraituagatik 2012/2013 ikasturtean “Eskola Jasangarria “ ziurtagiria jaso genuen eta 2016/2017 ikasturtean berritu. Aurtengo ikasturtean, 2020/2021, berriro Aintzatespena berritu behar dugu.

2017/2018 ikasturtean, jasangarritasun prozesua hobetzeko aholkuak jarraituz, IRAES21 taldea osatu genuen. Aurten Eskolako III. CONFINTa antolatzeaz gain, iaz ezin izan genuen egin, Euskadiko CONFINTean ere parte hartuko dute.

EA2030 programaren koordinatzailea Esther Gaintzarain jarraituko du izaten eta Euronet 50/50 proiektuaren eta IRAES21 taldearen koordinatzailea Maite Artetxe izango da.


2020/2021 ikasturterako helburuak hauek dira:

- EA21-EA2030ean GIHko 12. helburua: “ Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak” lantzea bertan, Euronet 50/50 proiektua integratuz.
- IRAES21ekin jarraitzea eta sendotzea.
- Ikastetxeko dokumentuen berritze prozesuan jasangarritasunaren hezkuntza islatzea.
- Talde sustatzailean beste mintegi eta proiektuen koordinazioa ahalbideratzea.

Aurtengoa trantsizio ikasturtea izanik, EA2030 programaren aldaketekin hastea.

STEAM PROIEKTUA


Eguneroko bizitzako arazo-egoeretatik abiatuz, ikasleen jakin-mina eta ikerketarako gogoia sustatu nahi dira, ingurunearen behaketa kritikoa eta ekintzaile jarrera indartuz. Ekonatura tailerra ikasgai burutuko da proiektua. Ikasle talde bakoitzak arazo-egoera desberdin bati aurre egiteko proiektu bat burutuko du. Ikerketa lan bat burutu beharko dute, arazo-egoeraren izaeraren arabera laborategia, baratza eta antzeko baliabideak erabiliko dituzte, baita ordenagailuak eta internetarako konexioa ere. Amaieran, soluzio/irtenbide/erantzun batera iritsi beharko dute. Ikerketaren emaitza eskola komunitatearekin errealitate areagotuaren bidez partekatu behar dutenez aurrez arlo hau landu beharko dute, zer den errealitate areagotua, sortzeko eta erabiltzeko moduak... ezagutu eta praktikan jarriko dituzte. 3D inpresoraren bidez aberastutako edukietara iristeko puntuak sortuko dituzte, gailu honen erabilera ezagutzeko aukera izango dutelarik.

	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 3 / 9

PROIEKTU EUROPARRAK

Erasmus Plus KA2 “Food for Thought: a European Recipe Book for Migrant Inclusion” bi urteko proiektuari hasera eman zitzaion iaz, eta aurten segida, testuinguru zailean pandemiagatik.

- Proiektuaren luzapena, urtebetekoa, eskatzeko aukera dago, eta baliatu egin da. Kide ditugun Europar ikastetxeekin batera irailean adosturiko erabakia izan zen.
- Proiektua koordinatzeko formakuntza saioetara joaterik ez dugu izan, ez direlako ospatu. Bilera birtual bat (zoom aplikazioa) egin zen horren ordez.
- Mobilitateak (Europako herrialde ezberdinetako ikasleen elkartruke fisikoak) egiteko aukerarik ez dugu ikusten aurten, hurrengo ikasturtera atzeratu ditugu, orduan burutzeko esperantzaz. Honek ikasle talde bat, harrera egindakoa atzerritar ikasle poloniarrei, poloniarra joan gabe geldituko direla esan nahi du. Komunikatu zaie ikasle. Haien ordez joango liratekeen beste talde baten aukeraketa egiten hasiak gara.
- Gure jarduera zeharo baldintzatu eta murrizten du Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurriek, mobilitateetatik haratago. Festa interkulturala egitea ezinezkoa da orain, edo trukeen ordez antolatutako Gastronomical film club session jarduera ere ez dakigu gainontzeko kideek zein neurritan garatuko duten.
- Mikel Larrañaga eta Roman Artano, biak hasiberriak garenez proiektuan, Maitere Arotzena eta Maite García-ren laguntzaz kudeatu behar diren plataforma digital konplexuen ezagutzan (eTwinning, eSepie, Mobility Tool) trebatzen ari gara.
- Finlandia, Polonia eta Italiako koordinatzaileekin harremanetan gaude, egoera aztertu eta lan ildoak zehaztu eta egokitzeke.
- Proiektuaren hedapena: lehen truke fisikoaren ordez abenduaren hasieran ospatuko diren jardueren kronika egin eta dokumentatu ondoren, ikastetxeko webgunean eta inguruko herri komunikabideetan zabalduko da.
- Diru kudeaketaz arduratzen ari gara. Baliabide gehigarriak lor ote litezkeen ikertuko dugu.

	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 4 / 9

IKASTETXEKO HELDUTASUN TEKNOLOGIKOA

Helburu nagusiak:

- Hezkuntzan parte hartzen duten eragileek baliabide digitalak erabat eta era egokian aprobetxatzea.
- Gaitasun digitalak garatuak dituzten herritarrak prestatzea.

Horretarako, ikastetxetako prozesu pedagogikoetan eta administratiboetan IKTak txertatzea sustatuko da, bai eta ekintza guztien koordinazioa eta koherentzia bermatu ere. Proiektu honen bidez, ikastetxea Teknologia berrien erabileran eguneratuta mantendu nahi da. Horretarako irakaslearen formazio saioak izango ditugu, ekipamendu informatikoa osatu eta ikasgaietan teknologia berrien erabilera sustatuz. Maila aurreratua lortuta daukagu eta horri eustea da gure erronka.

HBSP

Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektu honen **helburuak** ondokoak dira:


- Euskara edota gaztelera menperatzen ez dituzten ikasleei aparteko arreta eta laguntza eskaini nahi zaizkie, oinarrizko tresna hauek gabe nekez egin dezakete eta ikasketetan aurrera.
- Beraien familia eta ingurunearen egoera dela eta harremantzeko zailtasunak dituzte, banakako nahiz taldekako arreta eta laguntza eskaini nahi zaizkie.
- Orientazio mintegiak prestatu eta gidatzen duen aniztasunaren arretarako planarekin guztiz bat dator proiektua eta bertan txertatuko dira aurreikusten diren esku-hartze guztiak

DBH 2. mailan 6 talde izango ditugu, hauetako 3 taldetan egongo dira arreta berezi hau eskainiko zaien ikasleak, 4 ikasle gela bakoitzean.

KALITATEA HEZKUNTZAN

Aurtengo KALITATEA HEZKUNTZAN-eko helburuak honako hauek izango dira:

- Plan estrategikoa berritzea litzateke helburu garrantzitsuena.
- 2019-2020 ikasturtean hasitako berkodifikazioarekin jarraitzea
- 2020-2021 ikasturtean galdetegiaren kudeaketarekin hasiko gara.

	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 5 / 9

ELKARBIZITZA-HEZKIDETZA

Urola Ikastola BHI-n elkarbizitza positiboa bultzatu nahi dugu. Giro atsegina eta lasaia izateko lanean ari gara, bazterketa mota guztietan begirada ezarriz. Zentzu horretan ezinbestekoa dugu hezkidetzan eta berdintasunean aurrera pausoak ematea. Gure eguneroko elkarbizitzan konfiantza, elkarri entzutea, tolerantzia, errespetua eta enpatia oinarri izango dira, egia baita aniztasuna aberasgarria dela.


Elkarrekin bizitzea ezinbestekoa dugu eta horrek berak dakar saihestezina den gatazka egoerak kudeatu beharra. Gatazkak askotan erasoengatik, gaizki ulertuengatik eta interes desberdinak ditugulako sortzen dira. Guk gatazka-egoera horiek ikasteko aprobetxatu nahi ditugu, beharrezkoak diren konpetentziak garatuz, gatazkak modu egokian bideratzen ikastea ikasleen etorkizunerako onuragarria dela uste baitugu.

Aurtengo egoera bereziak ondorengo helburuak markatzera eraman gaitu elkarbizitzan:

1. Eskolako komunitateko kide guztiak eskolako partaide sentitzea, guraso zein ikasleekiko harremanak sendotuz.
2. Eskolako kideen arteko komunikazioan sakondu, enpatiaz jokatzuz eta denok askatasunez hitz egin dezakegula bermatuz.
3. Ikasleen zein ikasle-irakasleen arteko gatazken konponbide egoki eta hezitzaileak lantzea.
4. Harrera Planak berrikustea.
5. Eskolako kide guztien eskubide eta betebeharrak jakinaraztea eta lantzea.
6. Ikasleen arteko kohesioa lantzea.
7. Elkarbizitza Planaren hedapena egitea gure web orrian.

Eta hezkidetzan, berriz, ondorengoak dira gure helburu orokorrak, ondorengo urteetan lantzen joan beharrekoak:

1. Hezkidetzeta eta berdintasuna bultzatu eskola eremuan.
2. Gure ikasgaietan eta egunerokoan emakumeen ekarpenak baloratu.
3. Ikasle zein irakasleak tratatu onetan, generoren eta sexualitatearen gaietan trebatu.
4. Ikastetxeko kudeaketa, antolamendu eta curriculum dokumentuetan Hezkidetzeta eta Berdintasunaren ikuspegia txertatu.
5. Genero indarkeriaren prebentzio goiztiarraren ikuspegia eskola komunitatean bultzatu.
6. Emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen detekzio goiztiarrean konprometitu.

	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 6 / 9

CURRICULUM ANIZTASUNA

Curriculum Aniztasuna, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) ikasleen aniztasunari erantzuteko programa bat da. Ikasleen aukera edo ahalbideak handitzeko xedea du, etaparen helburu orokorrak erdietsi eta beraz, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eskura dezaten. DBH utzi aurretik ikasleek beren ikasketak tituluarekin amaitzeko izango duten azken aukera da.


Programa horretan parte hartzen duten taldeak txikiak izaten dira; ikasle kopurua 8 eta 15 artekoa izaten da. Ikasgaietara dagokienez, bi esparru nagusi daude: Hizkuntza-Gizarte eta Zientzia-Teknologia esparrutan. Aurreko esparruak beste hauekin osatzen dira: Gorputz Hezkuntza, Informazio eta Komunikaziorako Teknologiak (IKT), Ekonatura Tailerra (EKOT), Ingelera, Balio Etikoak edo Erlijioa (azken hau gela arruntan). Astean behin tutoretza saioa ere izaten dute.

Ikasgai horiek lantzeko erabiliko den metodologia taldearen ezaugarrietara egokituko da. Eguneroko lan dinamika bat ezartzea da funtsezkoena, horrela lortuko baitugu lanerako ohiturak finkatzea. Horiek izango dira euren baliabide garrantzitsuena, nola DBHko ikasketak aurrera ateratzeko, hala euren etorkizuneko ibilbiderako.

OINARRIZKO ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

Urola ikastola BHIin oinarrizko zeharkako konpetentziak lantzeko 2020-2021 ikasturterako helburuak:

- Oinarrizko zeharkako konpetentziak jorratzeko aukeratutako lan ildoak azaltzea eta justifikatzea.
- Oinarrizko zeharkako konpetentzien haserako sekuentziazioa, ikasturte bakoitzerako adierazleak, aurkeztea.
- Mintegi ezberdinetan haserako sekuentziazioa aztertzea, hausnartzea eta proposamen ezberdinak biltzea.
- Batzorde pedagogikoan edo mintegi buruen bileran Urola Ikastola BHIko Oinarrizko zeharkako konpetentzien sekuentziazioaren zehaztapen adostua egitea eta klausuroak onartzea.
- Proposamena eskola kontseiluak onartzea.
- Oinarrizko zeharkako konpetentzien sekuentziazioa IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAN txertatzea.


	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 7 / 9

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA: ULIBARRI PROGRAMA

Aurten ere jarraituko dugu hizkuntzaren normalizazioa aurrera eramaten ikastetxe osoan. Horretarako hainbat jarduera egingo dira:

- 2020-2021 Ikasturteko Plana egin eta garatzea.
- Zarautzeko Berritzeguneko saioetan parte hartzea
- Eskola Hiztun Bila saioetan eragile izatea.
- Nolegaren deialdian parte hartzea normalkuntzari lotutako ekimenak garatzeko aurrekontua izateko
- Euskaraldia eta Euskararen eguneko ekintzak antolatzea.
- Paisaia linguistikoa zaintzea.
- Blog bat sortzea eta osatzea
- Webgunean dagoen proiektuen dokumentua eguneratzea
- Dokumentazioan euskararen kalitatea aztertzea
- IKTetan hizkuntza lehenetsia euskara dela ziurtatzea
- Kulturaren transmisiorako tresnak definitzea
- 21-22 ikasturtean hizkuntza proiektuko ekintzak gauzatzeko lehen planteamendua egitea
- Ikasten aldizkariko testuen kalitatea aztertzea, edukiak sortzea, gainerako ikastetxeekin koordinatzea eta banaketa egokia ziurtatzea
- 21-22 ikasturtean elkatrueak gauzatu ahal izateko proiektuak abian jartzea Hazparenerekin zein Iruñeako Iturramarekin
- UEMAKo teknikarien laguntzaz, Batxilerreko 2. mailan arnaguneei buruzko tailerra antolatzea.
- Ikastetxera gonbidatuak ekartzea, ikasgelaren eta jendarte hurbilaren arteko harremanak senditu asmoz
- Euskara eta euskal kantagintza uztartuz, lehen zikloko zenbait ikaslek zuzeneko emanaldi bat ematea, ordu erdikoa gutxi gorabehera, beste ikastetxe batean, kantuak, koreografiak eta bitarteko digitalak baliatuz.
- Ikasleak Santa Eskean ateratzea, ikastetxera komunitatearekin harremanetan jarri asmoz, eta bide batez, ahozkotasuna eta literatura landuz.

	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 8 / 9

ELKARTRUKEA

COVID19a dela eta, ez dugu aurten elkatrakerik aurreikusten, baina 2021-2022 ikasturtean gauzatu dadin, ikastetxeen arteko harremanak oinarritu asmoz, aurten proiektuak jarriko ditugu abian elkarlanean.

HAUSPOA

Hauspoa Urola Ikastola BHI ikastetxearen berrikuntza proiektu bat da. Proiektu honetan irakaskuntza arautua, eskolaz kanpoko jarduerak, irakasleak, guraso elkarteak, ikasleak, ikasle ohiak, familiak eta Udaletxea inplikaturik daude.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

a) Ikastetxean **ekitate eta bikaintasuna** hobetzeko hezkuntza eskaintza zabaltzea:

1. Zailtasun sozio-ekonomikoak dituzten ikasleei laguntza egokituagoa emanez.
2. Ikaste edo gizarteratze arazoak dituzten ikasleei tresnak eta estrategiak emanez.
3. Bikaintasuna ahalbideratzeko gelako lanetik haratago sakondu nahi duten ikasleei aukerak emanez.
4. Ikasleriak ikas ohiturak barneratu ditzan ikasten ikasteko gaitasuna lehenetsiz.

b) Ikasleen **autonomia eta kompetentziak** garatzeko baliabideak eskaintzea.

c) **Eleaniztasunaren** bidean sakontzea.


d) Etxerako lanak zein talde **lanak egiteko baliabideak eskaintzea**.

e) Ikasleen **integrazioa** erraztuz, eta jarduera fisikoaren bidez ohitura osasungarrien barneratzea finkatzea.

f) **Hezkuntza komunitatearen kideen partaidetza** sendotzea, gurasoak eta ikasleak ere partaide eginez.

g) Eskola giroa eta **elkarbizitza hobetzeko** bidean jarraitzea, ikasle, guraso eta irakasleen arteko harremanak sendotuz.

h) Inguruko erakundeekiko **elkarlana**, hezkuntza eskaintza aberasteko.

	PRESTATUA: A.L. 2019/02/12	ONARTUA: M.Z. 2019/09/01	DOKUMENTUA		
			IKASTURTEKO PLANA IRAKASKUNTZEN JARDUEREN PROGRAMA IKASTURTEKO PROIEKTUEN LABURPENA		
			DK 010103010206	BER. 0	Orr. 9 / 9

HEZKUNTZA-ERREFORTZUA

Autoerregulazioa sustatu nahi dugu ikaslerian, norberaren zailtasunak gainditzeko bideratutako denborak aukeratzeko laguntzeko, errefortzu eta arlo irakasleriaren gainbegirapean. Errefortzu jarduerak eskola-porrotaren prebentziora bideratuta daude, betiere emaitza akademikoak hobetzeko helburuarekin.

DENBORA, EREMUA ETA BERRIKUNTZA

Ikasgelen ohiko eremuen apurtzea proposatzen dugu, ikasketa eremu berriak sortuz. adin desberdinetako ikasleek elkarrekin lan egin dezaten tailerretan.

Kasu guztietan, zabaltze eta sormen handiagoko eremu bat sortzea da helburua. Gogoia irakasleria eta irakasleak konpromiso bat izango dutena Ikastetxearen eremuan, giro eskuzabalagoa bat sortzen.